

Euskadiko fitness

txapela Eibarren



Betaurreko
progresibook
erosita
DOAN
eguzditako programi bati

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...



irribarrerik
onena
lortuko duzu!

...eta atera
egiezu etekina
hortz-zuriketan di-
tugun
**PROMOZIO
BEREZIEL.**

**Zatoz eta
KONTSULTA egin!**

**Badirelako
gauza batzuk
galtzea komeni
ez direnak...**

**IRAZABAL
KLINIKAn
txikienen
aho-hortzetako
prebentzioaren
alde egiten
dugu apustu.**



Egizuz PADI-ren azterketak.



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maidier Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Silbia Hernandez eta Ander Saleg

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO IRUDIA:

Iñaki Mateos

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen

aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HAZI-GURENAK.- Gangliokak. "Juan zan astian, hazi-gurenak euki destaz etxeko txikixenak".

HAZITTARAKO GORDE.- Bikaina delako ereiteko gordetzen dena. "Estuasunik haundixenian be haziitarako gordetakuari ez jako ikutzen". Euren burua besteen gainetik daukatela uste dutenei esaten zaie, zentzu ironikoan. "Zu, zaran ederrakin, haziitarako gordeko zaittue".

HAZKAPELA.- Hatzamarrean, zauriren bat babesteko ipintzen den babesgarri bat. Gaztelarazko 'dedil'. "Hatzamar puntia atiak harrapau zestanetik haragi bizixan daukat eta hobe izango dot hazkapelia ipintzia".

ESKUTITZAK

IÑAKI SAEZ ETA ASIER HERIZEN X. URTEURRENA

2001eko irailaren 8a, eibartarrondako festa egun handia zena tragedia bihurtu zen. Bi heriotzen berri iritsi zen, eguerdi partean, Arrateko zelaira. Iñaki Saez eibartarra, Irantzu Benito eta Asier Heriz plaentxiarrak Lurdes Txurruka Soraluzeko euskal preso bisitatza Avilara zihoazela oso istripu larria izan zuten. Iñaki eta Asier, bertan geratu ziren, biak hilda, eta Iñakiren emaztea; Irantzu larri zaurituta ospitale-eraman zuten. Sakabanaketa politika aplikatzen hasi zenetik, 16 senide eta lagunek galdu dute bizia orain arte bi estatuetako errepideetan. Iñaki eta Asier 9. eta 10. postuan daude zerrenda beltz eta luze horretan. Hildako pertsoez gain, senide eta hurkoen 268 trafiko istripu kontabilizatu dira bi estatuetako errepideetan, eta ondorioz ehun baino pertsona gehiago suertatu dira zaurituak. Gainera, kalte material eta ekonomikoak zein arrazoi honengatik lan arloan suertatutako kalteak kontaezinak dira.

Iñaki eta Asierren lagunok, euren heriotzen X. ur-

teurrena dela eta Euskal Presoen sakabanaketaren amaiera eskatu eta Iñaki eta Asierren senideei elkartasuna adierazteko Amañan antolatatu ditugun ekitaldi-tartara joateko deialdia egiten dugu. Maitasuna, konpromisoa, alaitasuna, begirunea... Gauza asko ditu beregan elkartasunak; oso baliagarria izan eta izango da bizi dugun errealitate arintzeko, baina, era berean -estatuei begira-, elkartasuna benetako presioa izan daiteke, bizi izan duguna beste inork ez bizitzeko eta gauzak aldatzen hasteko.

Uztailaren 6an, arratsaldeko 7etan, Etxerateko Mattin Troitiño eta Eibarko presoen senideen testigantzak jasotzeko hitzaldia antolatu dugu Amañako Plazan.

Uztailaren 8an, Amañako jaien txupinazoarekin batera, arratsaldeko 7etan, "Iñaki eta Asier goguan Euskal Presuak Etxera" lemapean ordu laurdeneko enkartelada egingo dugu Amañako Plazan.

IÑAKI AMUATEGI

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Jendea aspertu egiten da. Zergatik? Irakurtzen ez delako. Liburuak bai dela terminal bat: iraganarekin, orainarekin eta etorkizunarekin konektatzen zaitu, baita esistitzen ez diren munduekin ere. Nik ikusten dut jendea abioitik jaitsi eta berehala hasten dela telefonoz deika edo pantailan zozter begiratzen edo zozbertara jokatzeko. Eta, egitan, ezin dut ulertu!"

(Juan Luis Arsuaga, Atapuercan biologoa)

"Ijitoek nagusiei dieten errespetua ezin duzue beste inon aurkitu. Zure odolari, zureak izan direnei eta direnei... guzti hori errespetatzea oinarritzkoa da niretzat. Ezin dut nire neba-ahizpekin edo gurasoekin eztabaidan jardun berehala bakezkoak egin barik. Ijito batek ez du inoiz bere ama asilo baten sartuko: nola edo hala sakrifika-tuko da haren biloben berotasunarekin bizi dadin"

(Niña Pastori, abeslari flamenkoa)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

TXOSNETAKO ZOZKETIA

Jaixak Herrixak Herrixandako batzordiak sanjuanetan egindako zozketan hónetxek izan dira sarixa jasoko dabenak: lehelengua 2.644 eta bigarrena 2.181. Hórrek numeruak dittuenak uztailaren 15era arte eukiko dabe sarixa jasozeko aukeria eta horretarako e-maillez ipiñi biharko dira hartu-emonetan arduradunekin (jaixakherixakherixandako@gmail.com). Bestalde, gaur 19.00etan Montekasino pareko parkian billera irekixa egingo da, Arratietarako preparatzen juateko.

ARMERIXARAKO BEKAK

Hurrengo ikasturtian Armerixa Eskolak eta El Corte Inglés-ak arazo ekonomikuak dittuenendako bekak emoten segiduko dabela aurreratu dabe. Danera 30 lagunendako bekak etarako dittue eta interesa dakenak eskaerik datorren astian, uztailaren 4tik 8ra bittartian presentau biharko dittue, matrikulazina zabalik egongo dan egunetan hain zuzen be.

SAKABANAKETAREN KONTRA

Uztailaren 6xan eta 8xan 2011eko irailaren 8xan Lurdes Txurruka Soralezeko presua bisitatzera zoiazela istripu larrixa euki eben Iñaki Saez eibartara eta Irantzu Benito eta Asier Heriz plaentxitarrak gogoratuko dittue Amañan, hainbat ekitaldirekin: eguaztenian 19.00etan Etxerateko kidiekin hitzaldixa egingo da plazan eta 8xan txupinazuarekin batera enkartelada egingo dabe.

ETXIEN ZOZKETIA

Ubitxa eta Iparragirre kalietan egingo diran 82 protekziñoko etxiak irailian zozketa bittartez banatzeko moduan egongo dirala pentsatzen dabe agintarixak. Zozketa berez ekainian egittekua zan, baiña hauteskundiak eta udalbatza barrixaren osaketa tartian, zozketa atzeratzeko erabagixa hartu bihar izan dabe.

Bilduk 528.480 euro aurrezteko proposamena aurkeztu dau

EIBARKO BILDUKO ORDEZKARIXAK MARTITZENIAN PRENTSAURREKUA EMON EBEN, "udal gobernuak libera-ziño, dieta eta talde politikueri emondako diruaren gaiñeko salaketia egitteko". Emondako datuen arabera, "gaur egun Eibarren 2.000 lagun dagoz langabezixan eta kopuru horrek hillero 50 lagunetan gora egitten dau. Azken hillebetiotan murrizketak jaso dittue bai administraziñuetako bihargiñak (%5), bai haurra izan dabenak, baita langabezixa amaituta zekenak. Udaleko hainbat departamentutan be murrizketak izan dittue".

Krisixari lotutako egoera horren aurrian udal gobernuaren planteamendua gogor kritikau dabe Bildukuak: "Talde politikoko eta ziñegotziko emoten diran partideri (talde politikoko bakoetako 729 euro eta ziñegotzi bakoetako 363 euro hillian) eutsi jakue. Batzarretara juatigaittik ziñegotzi ez liberatueri billera bakoetako 313 euro emoten jarraitu dabe. Horrekin batera, alkate eta ziñegotzixen



Baskaran, Aldalur eta Vesga martitzeneko prentsaurrekuan. / EKHI BELAR

soldatak igo egin dittue (%4'55 alkatiarena eta %4'98 ziñegotzixena). Eta PSE-ko 8 lagun (alkatiaren idazkarixa barne), Gobernu Batzordeko liberaziño bi barne izendatu barik laga eta Bildu, EAJ eta PPTik ziñegotzi bana liberatzia erabagi dabe. PSE-ko beste bi ziñegotzixak be liberauta dagoz, bata Espaiñiako Senadutik eta bestia EA-Eko parlamentarixua da".

Egoera horren aurrean, Bilduren proposamena honakoa da: "Hasteko, talde politikoko 600 euro jasotzia eta ziñegotziko 185 euro (hillian). Horrekin

urtian 51.552 euro aurreztuko lirakez. Bestalde, billeretan parte hartziagattik 60 euro jasota, urtian 75.840 euro aurreztuko litzakez". Hirugarren neurrixa, liberautako ziñegotzixen kopurua murriztia litzake: "Arrasateko adibidiari jarraituta (alkatia eta 3 ziñegotzi liberauta) eta alkatiaren soldatia Udalhitzeko 22. maillara eta ziñegotzixena 14. maillara baxatuta 401.088'16 euro aurreztuko lirakez". Hiru neurrixak indarrian sartuz gero, Eibarko Udalak 528.480 euro aurreratzia lortuko leuke.

**Azittaiñen sorbak bedeinkatuz**

URTEROKO OHITURIARI JARRAITTUTA, AZITTAINGO JASOKUNDEAREN PARROKIXAN San Juan egunian sorbak bedeinkatzeko mezia ospatu eben. Tradiziñuari kaso egiñ ezkeru, aurten bedeinkatutako sorbak urte osuan basarixetako eta etxi-tako atietan etxeukuak babesten zintzillik eukiko dittue, datorren urteko San Juan suan erre bittartian.

"Eraiki zure etorkizuna" Debegesarekin


LANGABEZIXAN DAGUAZEN 50 URTETIK GORAKUENDAKO DOAKO PRESTAKUNTZA ESKINDUKO DABE Debegesan, "Eraiki Zure Etorkizuna" programaren bittartez. Laguntasuna proiektu barrixa abian jartzeko edota ekintzaille gaztieri laguntzeko asmua daken langabetuendako pentsauta dago eta uztailian ipiñiko dabe martxan, saio bittan banatuta: "Lehelengua uztailaren 4tik 6ra bittartian, 'Automentoring' izenekua izango da eta azterketa eta autoaurkikuntzaren inguruan garatuko dabe. Bigarren saia, barriz, enpresa ikuspegixa aztertzerazuzendutakua, uztailaren 7tik 12ra bittartian egingo da". Kasu bixetan klasiak 09.00etatik 14.00etara izango dira, Elgoibarko IMH Institutuan. Interesa dakenak Debegesarekin harremanetan ipintzeko aukeria dake, ekintzaille@debegesa.com helbidera idatzitta edota 943 82 01 10 telefonora deittuta.



Los Veracruz taldekuak eskindu eben San Pedro eguneko kontzertua. / SILBIA HERNANDEZ

San Pedro jaixak ospatzen

EGUAZTENA SAN PEDRO EGUNA IZAN ZAN ETA KARMEN KALIAN BEZPERAN EGIN ZETSEN jaixa ospatzeari, Beheko Tokikuek umiendako preparau zittuen jokuekin. Eguazten eguardian, barriz, mezia ospatu eben, Mutrikuko Agustinen komentuko Santa Katalina abesbatzaren partehartziarekin eta jarraixan piskolabisa be eskindu eben. Arratsaldian musikia izan zan nagusi: 19.30xetan Los Veracruz-en kantaldixa hasi zan Karmen kaleko parkian, 20.30xetan Kaleetan Kantuz-ekuak egon ziran kantatzen eta, kafia eta pastak jan ostian, 21.30xetatik aurrera Tucán orkestrekin berbena eginda agurtu zittuen jaixak.



Kanpoko igerilekuak martxa betian

ATIAK EKAIÑAREN 11-N IREKI ZITTUEN KANPOKO IGERILEKUAK ETA HARRZKERO JENDE MORDUA IBILLI DA bertan freskatzan, batez be sargorixak gogor jo deskun egunetan. Arduradunak emondako datuen arabera, 20 eguneko tartian 8.000tik gora lagun ibilli dira piszinetan eta jendiaren erantzun horrekin pozarren dagoz Udal Kirol Patronatokuak. Aurreikusitakua betez gero, kanpoko igerilekuak iraillaren 11ra arte egongo dira zabalik eta, ordura arte, goizeko 10.30etan

ireki eta arratsaldeko 20.00-etan itxiko dittue atiak. Udal Kirol Patronatuko bazkidiendako sarrerria duan da. Bazkide ez diranak, 18 urtetik beherakuak badira 3'95 euro ordaindu bihar dittue sartzeko eta 18 urtetik gorakuak, barriz, 5'40 euro.

Bestalde, azken egunotan gabaz jendia igerilekuetara sartu eta hainbat kalte eragin dittu eta horrelakua saihesteko seguridade pribaua kontratatzeke erabagixa hartu bihar izan dabe aste honetan bertan.

anzorik anzo



San Pedroko konjurua domekan Akondian

Urteroko ohittuari jarraituta, aurten be San Pedroko mezia eta konjurua egingo dabe Akondia basarrixan, domekan 11.00etan. Gurian antziñatik errotuta dagan tradiziñuaren arabera, uztak babesteko asmoz egindako ospakizuna izaten da urtero San Pedro egunaren inguruan errepikatzen juaten dan hau. Eta historixan atzera egitten ipiñitta, Ego Ibarra batzordiak jasota dakanez, "Akondia 1390ian aittatzen da lehelengoz, Akondia inguruan Oñaztar eta Ganboatarren arteko burruka ezaguna egon zan eta. 1600. urteko agirixetan Akondiako kofradixian barri emoten jaku. Kofradixa hori, Barrenkaletik behera eta Ixutik Eltzartzagaraiño zeguazan basarrixak osatzen eben. Badirudi, jatorriz aldamenian dagan San Pedro ermittian seroraetxia zala eta holan agertzen da 1747ko agirixetan. 1936ko gerratian, frentia basarrixan gaiñekaldian egon zan. Basarrixa gorrixen menpe egon zan 7 hillebetian zihar. Teillatutik egitten eben tiro eta ametralladoria ermitta barruan ipini eben. Ermittako kanpaia Astelena frontoira eruan eben. Gerratia amaittu eta gero basarrixa guztiz konpondu bihar izan zan eta 1993an barriztu da azkenengoz".


eibar kaleka

Urki Kurutzekua

Oiñ hurrengo protekziñoko etxien promozifiñuarekin haundittu dan kaliari izen bereko basarrixak emoten detsa izena. Basarrixaren atarixan, gaiñera, oin dala urte gitxi zahar-barritutako harrizko gurutzia be ikusi leike.

Pegora kopurua: 6

Erroladatutakoak: 175



asteko

2.796

datua

euro ordaintzen da metro karratuko gure herrixan (Donostian ordaintzen denaren erdixa) bigarren eskuko etxebizitzetan, eta Euskal Herri osoko merkeenetarikua da. Iaz 201 pisu saldu ziran Eibarren, 2009xan (187) baiño zeozer gehixago. Mende hasieratik hona %25 jaitsi da salmenten kopurua.

Bariantiaren azken zatixa zabalik

URRIRA BITTARTIAN BIHARRIAN SEGIDUKO BADABEBE, AGINDUTAKUARI JARRAITTU eta sanjuanak aurretik inau-

rau eben Eibar ziharkatu eta Ermurairño doian bariantiaren azken zatixa. Markel Olano Gipuzkuako Foru Aldundiko ahaldun nagusixa eta Eneko Goia errepide azpiegiturako diputauak hartu eben parte ekitaldixan eta, euren berbetan, *"bariantiarekin egunero 16.000 auto (tartian 1.600 kamioi) herri-
tik pasatzia saihestuko da"*. Azken faseko biharretan 90 leherketa egin bihar izan dittue kanpuan (51 Arrajolan eta Amañan, zazpi Artegietan eta 30 Ego ibaiaren inguruan) eta beste asko tunelen barrualdian. 2009ko azaruan hasi zittuen biharrak Sallobenteko errotondan dake amaieria. Trafikuarri zabaldu aurretik, oiñezkuak errepide barrixa ikusteko eta, pasuan ibiltzeko aukeria euki eben.

Korta Sarixa Beltrán-endako

KORTA SARIXEN AZKEN EDIZIÑUAN SARIXA JASO DABENEN ARTIAN LORENZO BELTRAN Eibarko igogaillu enpresaren sortzaillia dago. Beste sarituak Juan Luis Arregi, Esteban Sudupe eta Alfredo Samper izan dira eta danak atzo jaso eben sarixa, Patxi Lopez lehendakarixaren eskutik. Huescako Bolean jaixo arren, 60ko hamarkadatik bizi da Beltran Eibarren (enpresia 1963tik).

Eibartarrak Agifesen kanpaiñarako irudi


EGUAZTENIAN VICENTE RUBIOREN "SOLO" DOKUMENTALA EMON EBEN PORTALEAN, Agifese buruko gaitzak eragindakuen Gipuzkoako alkartiak antolatutako proiektiñuan. "Askatu zeure burua. Buruko gaixotasunen inguruko mitoak apurtu" kanpaiñaren barruan garatutako ekitaldixari laguntzen, kanpaiñari laguntzeko bideua be grabau eta zabaltzen dihardue Agifese alkartekuak eta protagonistak eibartarrak dira: eskizofrenia dakan Xabier Sarasketa 27 urteko gaztiak euki daben eboliuziñua erakusten daben graba-



Dokumentalaren irudi bat: Xabier Sarasketa eta Aitor Gorosabel berba egitten.

ziñuan, gaztiak bizitza hobera zelan aldatu jakon kontatzen dau, gizarteratzia posible dala erakusteko ahalegiñari jarrai-

ttuta. Horretarako, bere musika talderik gogokuena dan Su Ta Garreko Aitor Gorosabelekin alkarrizketia grabau dabe.



Zezenbideko eskillara mekanikuak martxan

BADIRA EGUN BATZUK JUAN GILASOLA KALIA ZEZENBIDEREKIN LOTZECO ESKILLARA MEKANIKUAK martxan ipiñi zittuela. Azken hiliotako martxiari jarraituta, herriko auzetara errezago juateko planari jarraituta egindako biharrak izan dira amaitsu barri dittuen honek be.



CELESTINO NARBAIZA ANSOLA
(2011-VI-25) *Beti jarraituko duzu gure bihotzean*



FAMILIAREN IZENEAN ESKERRAK
elizkizunetara etorri zareten guztioi

Bere aldeko **MEZA** egingo da domekan (uztailak 3),
eguerdiko 12.00etan, San Andres elizan.

Gastu publikua murriztia eta defizita gitxitzia da erakunde gehixenen helburua gaur egunian (aittazen dabenez, behintzat). Eusko Jaurlaritzak, esaterako, 205 milloi gitxiago gastauko dittu 2012xan; halako neurrixak beste erakunde askok be hartu dittue honezkero zorren kopurua gehixago igo ez deixan.

Nondik pentsatzen dozu aurreztu ahal dabela erakundiak?



ANA ORTE
41 urte
optikua

Gauza publikuak, askotan, ez dira bihar dan moduan zaintzen publikuak izatiagaitik, eta alferrik galtzen dira: egunez argixak ixotuta, egin eta ondoren desegitzen diran azpiegiturak, eta abar. Bestetik, begittantzen jata politikuen soldatak puztuta daguazela eta egoerara egokittu biharko zirala.




ASIER GERRIKABEITIA
37 urte
informatikua

Ez dakitt zihatzen nondik aurreztia izango litzakeen komenigarriena. Nik pentsatzen dot politikuen soldatak jaitsi ahal dirala, asko kobratzen dabe-eta. Dieta eta halaketan diru asko juaten dala begittantzen jata.


RAFAEL QUEIPO
65 urte
medikua

Gitxien bihar dogun gauzetan aurreratuko neuke. Pentsatzen dot defentsatik eta bankueri emoten jakuen portzentaetik aurrezten badogu, diru asko etarako genduala. Hori kasu bi esatiarren, baiña beste leku askotatik aurreratu leike.



AMAIA ALBIZU
32 urte
funtzionarioa

Funtzionarioxueri kendu deskue ba, politikuen soldatetatik be aurreztu biharko litzake. Begiitantzen jata propagandan be asko gastatzen dabela erakundiak eta ez dala biharrezkua. Hori bai, Osakidetza eta gizarte-laguntzetatik ez leukie aurreztu bihar, hori bai dalako biharrezkua.



ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Lomo iberikoaren carpaccio-a
Etxeko foie-a
Zizen nahaskia*

*Legatza laban edo
Bakailoa Club Ranero erara*

*Solomilloa plantxan edo
Ahate confit-a*

*Degustazio postrea edo
Txokolate moussea edo
Limoi sorbetea cavarekin*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

25 € + BEZ

Tokia gordetzeko:
943206348

IGOITZA NAGUSIA
Bilburieta 20 - beheko eskumak

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errausketa labea
Egoiberran (Signo poligonoan)
Partikela, mita eta osegun erretze zerbitzuak
Korak - Eskalak - Uteurrainko eskalak
Euskal Herri osoko ospitaleen hartze zerbitzuak
Nazio eta Nazioarteko irratiodok

Mugica Ehorzketa
Funerarioa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Azken aldian Espainiako gerra zibilari eta inguruko gertaerei buruzko berriek furixada handia hartu dute: oroimen historikoaren legea dela, errepublikaren aldarrikapenaren 80. urteurrena dela, sasoi hartako gertakizunak nonahi eta noiznahi ageri zaizkigu. Hemen ere gerra zibila izango dugu hizpide: gerra horretan galtzaileen aldean Euskal Herrian jardun zuten 11 gizon-emakumeren kontakizunak batzen dituen liburu bat. Gerran ez ezik, gerra ostean ere bai, gehienak hainbat urte preso egon baitziren Francok Espainian zehar egindako kartzeletan. Maizales bajo la lluvia (Arto-sailak euripean) du izena eta Aitor Azurki egilearekin egon gara.

Historia txikien bidez historia handia kontatuz

- Nola eta noiz bururatu zitzaizun liburua idazteko asmoa?

Gogoratzen naiz nire buruari galderak egin hasi nintzela ikastolan Gerra Zibila kontatu zigutenean. Familian ere gerrak eragin handia izan zuen: aitona gudaria nuen, osaba, gerrako semea. Amaren aldetik ere asko eragin zuen. Baina konturatu nintzen ez nekiela ezer. Gurasoek ez zidaten ezer kontatu, aiton-amonak ere ez, horren gaizki pasatu zuten. Aiton-amonak hil zirenean neure arte-

an esan nuen: hau ezin daiteke gertatu beste familia batzuetan, mantendu egin behar da memoria, hilezko bilakatuko ditut pertsona hauek, berriro gerta ez dadin eta jendeak ikusi dezan zer egin zuten demokraziaren alde.

- Sasoi horri buruzko liburuak eta ikerketak asko daude. Ze berezitasun du zureak?

Batez ere historia txikia kontatzen duela. Hasieratik historia txikia kontatzea izan da nire obsesioa. Fred Bérence-k esaten zuen bere Los Papas del renacimiento liburuan

historia txikiak askotan eragiten duela historia handian eta askotan erabakigarria izaten dela historia handirako. Iruditzen zait horiekin ere osatzen dela historia, ez bakarrik letra larri idatzitakoekin, ez bakarrik jende ospetsuaren diskurtsoekin. Horregatik nahita aukeratu dut jende xehea, lehenengo lerrora joan zirenak izan zirelako. Frankismoaren kudelkeria guztiak pairatu zituztelako. Bozemaile bihurtu ditut: gizartearen, euren familien, atzean geratu ziren burkideen bozemaileak dira niretzako.

- Protagonista gehienak oso edadetuak dira eta batzuk hil egin dira. Horrelako ikerketak berandu iritsi ete dira?

Bai. Egin ditudan aurkezpen hitzaldietan beti esan dut: berandu heldu gara... baina ez beranduegi. Bagara kontu horiek bizi izan ez ditugunak, hirugarren belaunaldikoak. Gure buruari galdetu diogu ea zer gertatu zen hemen. Errepresioagatik, ahanzturagatik eta beldurragatik gure gurasoei ez diete ezer kontatu. Eta orain gu etorri gara galdetzen ea zer gertatu den hemen. Oraindik hor daude zuloak, desagertuak milaka. Ba, nik neure harri koskorra jarri dut eta egiaren eta justiziaren bide horretatik ekin diot neuk ere aporazio txiki honekin.

- Gerra zibilari eta frankismoari buruz asko idatzi da, baina uste duzu jendeak badakiela nahikoa horretaz? Hutsunerik somatu duzu?

Bai. 20 urteko gazte bati galdetu nion



Eibarko Amutegi batailoiko kide batzuk Santa Kurutzen (besteak beste, zutunik, ezkeretik lehena, Victor Lekunberri Otxabiña. / EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FONDOA.



Egilea liburuko hainbat protagonistekin Donostian egindako aurkezpenean. / ESTI VEINTEMILLAS

“Bagara gerra zibileko kontu horiek bizi ez ditugunak, hirugarren belaunaldikoak. Errepresioagatik, ahanzturagatik eta beldurragatik gure gurasoei ez diete ezer kontatu”

Francok edo frankismoak zenbat iraun zuen eta, 20 urte esan zidan. Gerra noiz hasi zen ez zekien, Franco noiz hil zen ere ez. Horregatik hori zen nire obsesioetako bat: gazteriak galdera horiek egitea eta jakitea zer gertatu zitzaigun, nondik gatozen. Ze, azkenean gerraren ondorioa gara gu. Ezinbestekoa iruditzen zait belaunaldi berriek jakitea, ikustea, entzutea gure zaharrek pasatu zutena.

- Oroimen Historikoaren Legea dela-eta, ika-mika ugari piztu dira. Askoren ustez, nahiz eta urte asko igaro, frankismoak bere horretan dirau.

Bai. Saiatu dira, gizartean orokorrean, errepresioaren bitartez edo ixiltasunaren bitartez (gure familian gertatu zen bezala) ezkutatzen. Ixiltasun-paktu bat egon da. Batzuk, irabazleak, komeni zitzaielako eta beste batzuk, galtzaileak, beldurrak behartuta. Ixiltasuneko garai luze bat egon da. Diktaduran, errepresioaren bitartez. Transizioan, mehatxuen bitartez: kontuz, bestela beste estatu kolpe bat egongo da. Demokrazian ere, antzera: kontuz, ez ditzagun hautsak harrotu.

- Zer ikasi duzu zuk liburua idaztean? Zer erakutsi dizute protagonistek?

EIBAR ETA EIBARTARRAK LIBURUAN

GERRA ZIBILAK EUSKAL HERRIAN Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan izan zuen eragina, baina handiena, beharbada, hiru eskualdeok bat egiten duten inguruan: Legutio, Otxandio, Elgeta, Eibar, Durango, Gernika eta geroago Bilbon eta azkenean Kantabrian. Liburuan ageri diren 11 gizon-emaume gehienak hemendik zehar ibili ziren.

- Eibar eta eibartarrak noiznahi eta nonahi ageri dira liburuan.

Eibar historio guztian, testigantza guztietan, hainbat aldiz agertzen da. Bi pertsona daude Eibarren bizitza egin dutenak: Luis Ma-

ria Azpiri eta Gaspar Alvarez. Baina gero makina bat aldiz azaltzen da Eibar: fusilak ekarri zituztelako hona, hemen egon zelako frontea geldituta hainbat hilabete, Gipuzkoako azken bi herriak izan zirelako jausten. Bai, Eibarrek etengabe irtetzen du historian. Zuzenean, protagonistek kontatuta, eta zeharka, beste batzuk, beste leku batzuetakoak agertzen direlako. Azkenean liburuan hori da ezauzgarrietako bat: protagonista asko, leku asko, gertakari asko azaltzen direlako elkarrekin lotuta. Holako hari-mataza bat sortzen da, ordenatuta dagoen hari-mataza bat.

Gure herriak liburuan duen garrantzia kontuan izanda, datorren eguenean, San Fermin egunean, egingo dute Eibarren liburuaren aurkezpena. Arratsaldeko 19:00etan izango da Portalean, liburutegian. Egileaz gainera, liburuan euren testigantzak eman dituzten Gaspar Alvarez eibartarra eta Marcelo Usabiaga ordiziarra ere egongo dira.



Gaspar Alvarez eta Otxabiña eibartarrak El Duesoko kartzelan (1953).

Arrate Kultur Elkartia urtiak emon ditu biharian gure herrixan kulturian indartzeko ahalegiñan, 1952xan sortu zanetik. Sasoi batzuetan indartsuago, beste batzuetan zarata gitxiago etarata, baiña beti gauzak antolatzen herrixaren mesederako. Azken aldixan hillabete batzuetan itxitta egon da, instalaziñuak berritze lanetan; junixuaren 15ian zabaldu eben barriro atiak eta, horrekin batera, gogor eutsi detse programaziño barrixa osatu eta antolatzari, aurrez egindago bidian sakontzeko asmuarekin. Eibartarrok aukera politta dakagu, eta izango dogu hamendik aurrera, kulturak eskintzen deskun hainbat okasiñuaz baliatzeko eta sasoi honetan bereziki eskintza zabala dakagu esku artian.

Topalekuan Eguen Zuri argazki lehia- ketako parte-hartzaillien fotografixak dagoz oindiokan ikusgai, hamazortzi egillien lanekin. Erakusketa horrekin inau- gurau eben areto barrixa eta zabaldu zan tabernia ekaiñaren 15ian. Harrezkero, beste hainbat ekitaldi egin dira instalaziño barrixetan: holan, junixoko 21ian taberna- ko bertso-saiua egiñ eben, Hankamotxak



Hankamotxak taldiak bertso-saiua eskindu eban aurreko astian. / EKHI BELAR


Leire Abanzabalegik Arrate Kultur Elkartiaren ordezkaria, herriko beste kultur elkarteko partaidiekin.



Arrate Kultur Elkartia indar biziz barriro be

taldiaren eskutik, Oier Aizpurua, Manu Goigana eta Mikel Arrillagaren parte har- tziarekin. Hurrengo egunian jarraipena eu- kiko daben herriko kultur elkartien topake- tia egin zan eta aste honetako astelehe- nian EHEk landutako dokumentala izan zan ikusgai. Aste betia izan da oingua eta, martitzenian, liburu eta diskuen truke azo- kia egiñ eben, eguaztenian kontzertua izan zan, eta atzo, bes- talde, Elkartiaren bat- zarra egin zan eta el- kartekide nagusixeri ohorezko insigniak ba- natu zetzen.

Datorren astia ez da gitxiagorako izango eta, San Andres parrokixako klaustoraiño juanda, martitzenetik barixakura egitarau politta prestau dabe: lehelengo hiru egunetan diaporamen emonaldixekin eta bari-



Kultuko instalaziño eta egokitze biharretan egin dabe biharra Usobiaga eta Otermin arkitektuak.

xakuan irakorrittako antzerkixarekin, danak be gabeko 22.00etan hasitta. Eta hurren- guan be izango da zerekin gozatu: Iñaki Pe- rurena harrijasotzailliak hitzaldixa eskinduko dau hillaren 12xan, martitzenian; eta, handik bi egunera, 14an (eguen) Asier Serrano- ren ibilbidiaren inguruko emonaldixa izango da, musikia eta literatura uztartuz.



JESUS SOLOGAISTOA OREGUI (ekainaren 9an hil zen, 70 urterekin)


*Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ezta zure kemen,
itxaropen, bizipoz eta aurrera egiteko gogoia ere.*

**ZURE EMAZTE ETA SEMEAREN IZENEAN, ESKERRIK ASKO URTE GUZTI
HAUETAN LAGUNDU GAITUZUEN GUZTIOI ETA AZKEN AGURRA EMATERA ETORRI ZINETENOI.**




UDAKO DIAPORAMAK uztailaren 5, 6 eta 7an

Azken urterokuari jarraituta, diaporamak ikusteko hitzordua antolatu dau Arrate Kultur Elkartiak julixoko lehen asterako. Oinguan be hiru saiok hartuko dabe San Andres parrokixako klaustrua: julixoko 5ian, 6xan eta 7xan izango dira emanaldixok eta munduko beste herrialdetako ohitura eta kulturak ikusteko aukera edarra eskinduko deskue hona datozenak euren lanetan. Hiru pasiak, martitzenetik eguaztenera, gabeko 22.00etan hasiko dira.



“ZALDIZ MUGARIK GABE” ekarriko deskue Asier Aranzabal eta Mila Gallastegi eibartarrak, zaldi gainean egindako biak biak: bata Sahara basamortuaren iparraldian, nomada beduinoen bidia jarraituz, eta bigarrena Mongoliako lurraldetan, bertako estepa eta taigetan, kazajoen lurretan sartuz eta arranuekin zelan ehizatzen daben erakutsiz. “DOLPO, BIZIAREN MUTURREAN” lanian, Jose Ramon Agirre “Marron”-ek Nepaleko ipar-mende-

baldeko lurraldia erakutsiko deskue, Himalaiako mendi-kate altuekin. 5.000 biztanle bizi dira bertan, 35 herrixka eta monasterixotan banatuta. Tibeten badago be, Nepaleko administraziñopian bizi dira. “DOLOMITAK” lana, bestalde, M.A Otsoa de Aldak ekarriko deskue. UNESCOk gizadiaren ondaria izendatutako tokiko edertasun berezixa erakutsiko jaku azken diaporaman. Monumentuak eta gurutzia bertan izandako historia gerturatuko deskue.



Areto zabalagua

Lau hillabetetan egon da itxitta “Kultu” (gehixenak holan deitzen deise) eta egindako biharrak barriztazte proiektu sakonari jarraitu detse. Lan gehixenak lokalaren planta nagusixan izan dabe eragiña, eta hor Topalekua eta tabernia barritu dira. Topalekua oiñ arte erakusketa-gela moduan erabiltzen zan, baiña hamendik aurrera “beste funziño batzuk be hartuko dittu, tartian proiektziñuak, hitzaldixak eta formatu txikiko bestelako ekitaldixak”. Holan, bai Topalekua eta baita tabernia be, bixak haunditu dira, horretarako lehenagoko ekitaldi-aretuaren platea erabilliz: lokalaren ondoko partian eguan tabikia, espazio bixak banatzen zittuana, bota egin da lekua irabazteko eta oiñ leku bixak komunikatuta dagoz. Tabernan be hainbat aldaketa egin dira, eta barra -sarreratik begiratuta- ezker aldiari geratzen da oiñ; komunera juateko ez da jaitsi bihar -lehen biharrezkua zan eta akzesibilidade-arauak ez zittuan betetzen- oin planta berian dagualako. Sukaldiak, bestalde, behian jarraitzen dau eta barrarekin lotzen da igogaillu baten bittartez.



Iñaki Perurenak hitzaldixa emongo dau hillaren 12xan.

Eibarko BATZOKIA

EGUNEKO MENUA:

Ego Gain, 1 - behea

14'5 euro (BEZ barne)

ASTEBURUKO
MENU BEREZIA:

35 euro (BEZ barne)



RAZIOAK BARRAN

Tfnoa. 943 25 72 80
www.baibatxokia.com

Entsaladak
Legatza frijitua 9 euro
Urdaiazpiko iberikoa . 8 euro
Sepia plantxan 6 euro
Olagarroa 6 euro
Filetea 9 euro




- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net



CHALCHA JATETXEA

Menu bereziak
eta karta

zabalik
UZTAILEAN:

IGANDEetan eguerdira arte / ASTELEHENetan egun osoan
ISASI, 7

TEL: 943 20 11 26

TEEN-
AJEA



Usartza Txistulari Banda eta Cielito Eibarko Musika Bandaren ekimenez Musikeibarrek ateak irekiko ditu irailean. Banda bi hauek dan duden musika tresna, eta Eibarko Musika Eskolan irakasten ez direnak landu eta irakasteko proiektua da. Izen-emateko epea zabalik dago (687647537 edo musikeibar@gmail.com).

AINHOA URKIZU / IÑAKI ORBEGOZO:

“Musikeibarrek ez du konpetentziarik egiten”

- Zer da Musikeibar?

Badaude instrumentuak Musika Bandan daudenak, baina Musika Eskolan ematen ez direnak. Horien artean, tuba, bonbardinoa, oboea, tronboia, tronba eta txistua. Orduan, guk emango ditugu musika tresna horien klaseak. Aipatu izan da Musika Eskolaren konpetentzia egingo dugula, baina inolaz ere. Eskolaren osagarria izango da. Ez dugu solfeorik emango, musika tresnarekin jardungo dugu bakarrak. Musika Eskolan ematen dena ez da Musikeibaren emango.

- Nortzuk bultzatu duzue proiektu hau?

Banda bitik irten da proiektua. Cielito Musika Banda eta Usartza Txistulari Bandatik. Musika-riek nolabaiteko maila lortzea da helburua, ondoren banda hauek bideratzeko. Izan ere, gaur egun badauke musika tresna batzuk Musika Eskolatik irten go ez direnak epe-luzera, adibidez, tuba eta bonbardinoa. Ez dago tresna horien irakasle-rik, beraz, ezinezkoa da.

- Ikusi duzue interesa musika-riengan proiektu honetan parte-hartzeko?

Momentuz txistuko hiru edo lau musikariek erakutsi digute interesa. Beste musika tresnei dagokienez, zalaparta pixkat sortu da Musikeibaren sorrerarekin eta jendeak ez daki oraindik ondo zertan datzan. Konpetentzia bezala ikusi izan da Musikeibar, baina ez, osagarri hutsa da, arriskuan ikusten baitugu banden jarraipena etorkizuneari. Izan ere, Musika Banda, adibidez, orain ondo dago, baina hemendik bost urtetara nori daki. Musika Eskolatik ez badira ikasleak ateratzen, ez badute gutxienezko mailarik... Adibide bat ipintzearen, Musika Bandako perkusionistak Elgoibarko Musika Eskolatik datozen bi dira.

- Zenbat irakasle izango ditu Musikeibarrek?

Carlos Sanchez Barba Cielito Musika Eskolako zuzendaria, Jose Miguel Laskurain Usartza Txistulari Bandako zuzendaria, Ainhoa Urkizu eta Iñaki Orbegozo egongo gara irakasle moduan. Beste momentu batean bonbardinoa emateko besteren bat etorriko da, baina printzipioz gu laurok.

Itzadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelarik euskarara,
eta ingelesez euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Euskal Herriko hiriburua da Gasteiz, eta uztailaren 19tik 22ra Europako hainbat lekutatik etorritako gazteen topagune ere izango da. 'Eremu urriko hizkuntzak edo hizkuntza gutxituak hitz egiten dituzten Eurpako gazteen topaketa' egingo da han, Gasteizko Udalaren Gazte Plana eta Euskara Planaren ekimenez.

Gasteiz, Europako gazteen topagune

Katalana, bretoiera eta, noski, euskera egongo dira entzungai Gasteizen hiru egunetan zehar. Britainia, Korsika, Galizia, Katalunia, Balaentzia, Mallorka eta Euskal Herriko 18 eta 30 urte bitarteko gazteak batuko dira, eta euren esperientzia eta ideiak partekatzea da helburua.

Hiru ataletan banatuko dituzte egunak gazteek. Goizeko lehen atalean alde akademikoa landuko dute, adibidez. Hainbat hitzaldi egongo dira.

19an, horrela, Carme Junyent Bartzelonako Unibertsitatearen irakasleak 'Hizkuntzen ja-sangarritasuna' izenekoa eskainiko du 10.00etan; 20an, Sechu Sende 'Galizia eta Gallegoa', eta A. Urmenetak 'Euskadiko egoera umore onez' izenekoa; 21ean, Gorka Julio 'Teknologia berriak', eta Joan Solé Carmardons 'Katalunian egindako ikerketa' hizaldiak; eta 22an Jasone Osoro, Irati Anda eta Naroa Cuestak mahai ingurua egingo dute.




Topaketetako kartelaren irudia.

Goizeko bigarren zatian gazteen sasoia helduko da, eurek diseinatu eta kudeatuko baitute zer egin. Arratsaldeetan, berriz, ekintza ludikoak egingo dira (abesti lehiaketa, gastrono-

mia...). Era berean, Gasteize bisitatuko dute, bizikletan ibiliko dira, dantzan egingo dute eta kontzertu batera joango dira.

Ekimen honetan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago. Aipatzekoa da, bestetik, hitzaldiak irekiak izango direla eta antolakuntzak bere gain hartuko dituela lo egiteko toki eta bazkarien gastuak (uztailaren 18tik 22ra). Informazio gehiago lortzeko gazteria@vitoria-gasteiz.org helbidera idatzi edo 945161616 telefonora deitu.



**EIBARKO
HIZKUNTZA ESKOLA
OFIZIALA**

Jardiñeta, 3
20600 Eibar



**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2011/2012**

**MATRIKULA OFIZIALA
Ekainaren 30etik uztailaren 14ra**

**HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA,
FRANTSESA ETA INGELESA**

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian.

Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo **943200618** telefonoan.



**Usobiaga & Otermin
arkitektoak**

erakuntza
erreforma
berrikuntza
barne diseinu
eta
aktibitate
proiektuak
estruturak
ITE informeak
aholkularitza
gremioen koordinazioa

Zezenbide 6 behea. EIBAR. Tel/fax:943200318
ibonusobiaga@euskalnet.net

Berbetan-ekoek ikasturteari agur esan diote

ASTERO EUSKERA PRAKTIKATZEKO BATZEN IBILI DIREN TALDEEK EKAINAREN 20-AN AGURTU ZUTEN IKASTURTEA, Klub Deportiboko tabernan egin zuten afari-meriendarekin. Aurretik, baina, ikasturtean zehar jokatu duten tribiala irabazi dutenek (asteleheneko taldekoek) saria jaso zuten. Berbetan programaren ardura duen ...eta kitto! Euskara Elkartetik adierazi digutenez, *“aurten aurrekoetan baino talde gehiagok hartu du parte programan eta baita lehiaketan ere, besteak beste gurasoak batu zaizkiolako lehenagotik martxan zeuden taldeei”*. Udako oporren ostean, ikasturte berriarekin batera helduko diote asteroko martxari euskaldun zaharrek zein berriek.



Asteleheneko taldekoek izan ziren tribial txapeldunak. / AINHOA LUZ

Aita Karmeloren “Kalea” argitaratu du Ego Ibarrak


**EGO IBARRA BATZORDE-
AK AURRETIK SEKULA**

ARGITARATU GABEKO “KALEA”, KARMELO ZUBIZARRETA "Aita Karmelo"ren nobela kaleratu du. Ego Ibarra batzordeak berak jasotakoaren arabera, *“Azkoitia 1927an jaioa, Aita Karmelo edo Karmelo Zubizarreta Arrizabalaga 1952an etorri zen Eibarrera. Soldadutza egitera joan eta, handik bueltan, Altzo herrian urtebete eman ondoren, atzera ere Eibarrera bueltan etorri zen. 1963-69 urteetan Eibarko karmeliten nagusi izan zen. 1996ko abuztuan Alemanian hil zen, hango etorkinekin beharrean zihardu bere anaia bisitatzera joan zenean. Euskaltzalea eta idazle oparoa bezain aberatsa, bere lan gehienak Karmel aldizkarian eman zituen argitarara”*. Ego Ibarrak *“berak idatzi zuen bezala digitalizatu”* duen “Kalea” nobela, sekula argitaratu ez zitzaion lana eta bere bizitzari buruzko beste hainbat datu www.egoibarra.com gunean eskuragarri daude.



Liburu ezkutuaren bila jokoaren sari banaketa

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK IRAKURKETA SUSTATZEKO HELBURUAREKIN EGINDAKO “Liburu ezkutuaren bila” jokoan 102 umek eman zuten izena eta horietatik 40 azken txanparaino ailegatu dira. Ekainaren 16an banatu zizkieten sariak lehiaketako irabazleei: Ane Araujo, Aratz Alberdi eta Ony González bizikleta banarekin irten ziren Portaletik. Lehiaketako arduradunen berbetan, parte hartu dutenen artean gehienak (23) gometxa gorrikoak izan dira, hau da, 5-7 urte bitartekoak: *“Gometxa berdekoen artean, hau da, 8-11 urte bitartekoaren artean 15 lagunek amaitu dute jokoak eta gometxa horikoak (12 urtetik gorakoak) gutxi animatu dira; bakarrik gazte bik amaitu dute jokoak”*.



Andoni Trekuk El Ambigú-n du erakusketa.



Zigor Astigarragaren lanak Portaleta tabernan.



Argazki erakusketak tabernetan

GAUR HASI ETA UZTAILAREN 31-RA ARTE HIRU ARGAZKI ERAKUSKETA EGONGO DIRA MARTXAN beste horrenbeste tabernetan, Klub Deportiboko Argazkilaritza taldekoek antolatuta: Portaleta tabernan Zigor Astigarragaren lanak ikusgai daude, Klub Deportiboan Julian Ochoaren argazkiak ikus daitezke eta El Ambigú tabernan, berriz, Andoni Trekuren argazki erakusketa dago martxan.




39. udako ikastaroak martxa betean

HASITA DAUDE UEU-K URTERO ANTOLATZEN DITUEN 39. UDAKO IKASTAROAK ETA UZTAILAREN 22-RA BITARTEAN martxan egongo dira, aurtengo edizio-rako aukeratu duten "Murgildu" izenburupean. Guztira 35 ikastaro emango dira UEUre hiru egoitzetan, hau da, Eibarren, Baionan eta Iruñean. Ikastaro guztien artean lehen a Eibarren, Markeskua jauregian eman zuten astelehe-

nean eta arduradunen berbertan, "goizetik mugimendua izan genuen eta ikasle nahiz irakasleak gogotsu etorri ziren, ikasteko eta ongi pasatzeko asmoz". Eibarko ikastaroen lehenengo txanda gaur bertan amaituko da, baina ikastaroak berriz ere bueltan izango dira, uztailaren 11tik 15era arte. Bitartean, uztailaren 4tik 6ra Baionan emango dira eta uztailaren 18tik 20ra Iruñean.

Lambretta motorren erakusketa

BIHAR HASI ETA UZTAILAREN 8-RA BITARTEAN, LAMBRETTA EIBAR VIII. KONTZENTRAZIO-RAKOA GIROTZEN JOATEKO, Eibarko hainbat dendatan eta azken urteotan egindakoaren bidetik Lambretta etxeko motorrak ikusgai ipiniko dituzte. Dena dela, kontzentrazioaren inguruan antolatutakoak hurrengo asteburuan, hilaren 8an, 9an eta 10ean pilatu dituzte. Besteak beste, eta San Kristobalga jaiekin bat eginda, Medina Azahara taldearen kontzertua egingo da barixakua gauean eta motorren kontzentrazioa zapatuan izango da.



Garagardo Jaian zozketatutako bidaia 703 zenbakiarentzat

SANJUANEK AURREKO ZAPATU GAUEAN EGIN ZEN GARAGARDO JAIRA JOANDAKO JENDEAREN ARTEAN bidaia banatzeko zozketa: 703 zenbakiari egokitu zaio El Corte Inglés-en eskutik lagun birendako asteburupasa Parisen, 2012ko otsaila-martxo bitartean 6 Nations Torneoan jokatu den Frantzia eta Inglaterraren arteko partidura joateko (sarrera bi, hotela eta hegaldiak barne). Saria jasotzeko kontaktua lon da (610432687 telefono zenbakian). Antolatzaileek karpura joandako guztiei emandako laguntza modu berezian eskertu nahi dute, "laguntza hori barik ezingo genukeelako hain maite dugun kirolean jardun".



Gatillazo taldea izango da barixakuko kontzertuan.

Amaña, jairako prest

DATORREN ASTEBURUAN EHINGO DITTE JAIEI AMAÑA AUZOAN, BARIXAKUAN 19.00-ETAN IGOR ALDALUR BILDUKO ZERRENDABURUAK TXUPINAZOA botatzearekin batera. Arratsaldean Gorritiren eskutik egingo diren joko eta ikuskizunen ostean, gauean, 23.45etatik aurrera jaietako ekitaldi nagusietakoaren txanda ailegatuko da: aurtengo kontzertuan jardungo duten taldeak Surfin Kaos, Gatillazo (La Polla-ko Evaristoren oraingo taldea) eta Atom Rumba dira.

laburrak

1951-N JAIOTAKOAK

Urte horretan jaiotakoek azaroan bazkaria egin nahi dute, Iruki sagardotegian. Irailean ekitaldiaren inguruko informazio zabalagoa emateko asmoa dute antolatzaileek, beraz interesatuei adi egoteko eskatzen diete.

ARRATEETARAKO BILERA

Udaleko Jai Batzordetik aditzera eman dutenez, martitzenean (uztailaren 5ean) Arrateko jaiak prestatzen joateko bilera egingo da Portalean (ikastaro gelan). Bilera irekia izango da eta parte hartu nahi duten guztiak daude gonbidatuta. Bestalde, irailaren 8an (Arrate egunean) erroskilak saltzeko postua ipini nahi dutenek uztailaren 13ra arte izango dute Pegoeran eskaera aurkezteko aukera. Eskaera egiteko inprimakia eta bestelako argibideak www.eibar.es helbidean daude eskuragarri.

HIZKUNTZAK PRAKTIKATZEKO

Babelia hizkuntzak ikastea eta irakastea gustoko dutenen komunitatea da, mintzapraktikarako ingurune kolaboratiboa. Bertan ahozkotasan gaitasunak hobetzeko aukera eskaintzen dute eta une honetan euskara, gaztelania eta ingelesa praktikatu daitezke. Euskal Herriko Unibertsitateko Grupo Hipermedia y Multimedia taldeko ikerlari eta ikasle multzo batek ipini dute martxan Babelium izeneko proiektua eta informazio zabalagoa nahi izanez gero <http://babeliumproject.com> helbidera jo daiteke.

EIBARKO IDAZLEAK SAREAN

Ego Ibarra batzordeak orain hurrengo digitalizatu dituen idatziak Juan San Martinek eta Ramiro Larrañagak egindakoak dira, batez ere, baina Vicente Aguirre sendagilearen lanen bat ere badago tartean.

Infantil mailako pilotariak azpitxapeldun Udaberri torneoan

TORNEO BIKAINA JOKATU DU ARRILLAGA-NARBAIZA BIKOTEAK AURTENGO UDABERRIN eta, hasierako ligaxkan bost partidutik lau irabazita, jarraian nagusi izan da Lazkaoko final-zortzirenetan, Ordiziako final-laurdenetan eta Astelenan jokaturako finalerdietan. Finala kanpoan jokatu behar izan zuen Klub Deportiboko bikoteak eta horrek eragina izan zuen azken emaitzan: 22-18 Ordiziako Txapagain taldeko Beloki-Zabalaren alde. Torneo berean, Unai Andonegi jubenila finalerdietara iritsi zen, hor 14-22 galtzeko Loliako frontoian.

San Juan torneoa

Jon Bengoetxeak bereganatu zuen lau eta erdiaren barruan jokaturako txapelketa, XVII. edizioaren finalean Egaña gaituz 22-17. Azken hau joan zen aurretik (5-0, 10-5 eta 14-8) Deporrek arteko lehian, baina Bengoetxeak pazientzia gehiago izan zuen ondo nagusitzeko. Binakako txapela Unamunzaga eta Agirrebeñarentzat izan zen: 22-19 nagusitu zitzaizkien Zubizarreta bie (eibartarra aurrelaria eta Eskoriatzakoa atzelaria).



Zorion Arrillaga eta Iker Narbaiza.

38 txakur Arrateko muestra txapelketan

23 TXAKUR IZAN ZIREN TXAPELKETA ZABALEAN ETA BESTE HAMABOST DIANA ELKARTEKOENTZAT bakarrik antolatutakoa. Javier Oñaederra eta "Ara" txakurra izan ziren onenak "kontinental" mailan eta Luis Maiz eta "Sua de Astingorri" txakur britainiarren artean; azken hau izendatu zuten, gainera, lehiaketaren txakur onena eta Laurona Zabala eskopeta bereganatu zuen bere jabeak. Dianako torneoa Roberto Solagaistua eta "Serbo" txakurarentzat izan zen; 2. eta 3. postuak Mauricio Vicuñarentzat izan ziren, "Lord" eta "Jay" txakurekin, hurrenez hurren.



aren artean; azken hau izendatu zuten, gainera, lehiaketaren txakur onena eta Laurona Zabala eskopeta bereganatu zuen bere jabeak. Dianako torneoa Roberto Solagaistua eta "Serbo" txakurarentzat izan zen; 2. eta 3. postuak Mauricio Vicuñarentzat izan ziren, "Lord" eta "Jay" txakurekin, hurrenez hurren.



Eibarko bolo-palma txapelketaren zilarrezko ezteiak

URTERO LEZ, UZTAILAREN LEHEN DOMEKAN JOKATUKO DA IPURUAKO BOLATOKIAN EIBARKO BOLO-PALMA TXAPELKETAREN FINALA. Bertan izango dira estatuko jokalaririk onenak, liga txapelketan dihardutenak, eta aurreko kanporaketetan aurrera egitea lortu dutenak. Eibarko Casa Cantabriak antolatzen duen txapelketaren zilarrezko ezteiak betetzen ditu aurten eta izen handiko jokalariek batuko dituzte domekan, 15.30etatik aurrera, "Kantabrian Euskal Herrian pilotak duen oihartzun bera duen kirol modalitatean".




Deba-Itziar triatloiarren 3. edizioa bihar

HIRUGARREN EDIZIO HONETAN BERRIKUNTZA IZANGO DU GAINERA, LEHENENGO ALDIZ JOKATUKO BAITA distantzia olinpikoan: kilometro eta erdiko igeriketa saioa, 37 kilometro bizikleta gainean eta hamar kilometro eta erdiko antxintxiketaldia. 550 parte-hartzaile kopuruan ezarri dute muga Deba-Itziar Extremeko antolatzaileek eta emakumeek 16.10etan irtengo dute eta gizonezkoek 16.30etan. Lasterketaren muina, hau da, boxeak, aldatu egingo da aurten eta Gurutze Gorriaren aurrean dagoen zelaian kokatuko da. Bizikletako probak Mutrikura eramango ditu parte-hartzaileak, Kalbariotik Mendarora jotzeko eta, Sasiola eta Lasturretik pasatuta, Itziartik Deban sartzeko; oinezko lasterketak, bestalde, hondartzako pasealekua eta Lasao baserri inguruak hartuko ditu.

ROBERTO BARTOLOMÉ ELOSUA

2011ko ekainaren 18an hil zen, 45 urterekin



Familiaren izenean, eskerrik beroenak gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Aurrez-aurre ikusita ez du orrialde honetako pertsona bera ematen. Jendeari erreparoa ematen dien postura hauek landutakoak dira, berez exageratuak, epaileen aurrean erakustekoak, baina eguneroko jardunean nabaritzen ez direnak. Bereziki margotutako gorputzak dira jendearen harridura pizten dutenak; atzetik, baina, kirol jarduna dago, denbora askoko disziplinak bideratutako emaitza. Eibarkoa da Euskadiko fitness txapelkun berria.



Aurretik kulturismoan jardun zuen Iñaki Mateosek. Urteak dira kirol hori laga zuela: *“Euskadi eta Nafarroako azpitxapelkuna izan nintzen juniorretan eta seniorretan”*. Eta orain, *“39 urterekin”,* fitness modalitatean hasi eta berehala, Euskadiko txapela eskuratu zuen Gernikan: *“Nire mailan irabazteaz gain, txapelkun absolutoa izan naiz”*. Durangoko Kirol Errota ordezkatu zuen txapelketan eta lau kiroldegi eta gimnasioetan dihardu biharrean, *“musikaz lagundutako aktibitateetan”*. 22 urteko ibilbidea darma mundu horretan eta master trainer da gaur egun Mateos, *“monitoreen maisua”*.

Kulturismoaren eta fitnessaren artean dauden aldeei inguruan galdetuta, *“fitness-ean proportzioak eta definizioak dituen*

garrantzia” nabarmentzen digu Eibarko kirolariak. *“Kulturismoan pisua hartzen da bakarrik kontuan; fitness-ean, ordea, taila eta pisua batera joan behar dute, ezin duzu pisu edo bolumenik hartu. Prestakuntza nahiko antzerakoa izanda ere, lehorrago joaten gara lehiaketetara: ez urrik, ez koiperik... ezer barik”*.



Kirol modalitate horretako beste korrante berri bat ere mahairatzen digu Mateosek: *“Bodylineak forma hobek egitea ahalbidetzen du, gorputz koipearen %10etik pasatu barik. Gazteentzako modalitate egokiagoa da eta igarri da, boom-a izan baita gimnasioetan”*. Horrelako kirolean, zein adinekin hastea komeni den galdetuta, *“16 urterekin hasi bazaitezke ere, 20-22tik aurrera egitea gomendatuko nuke. Arduratsua izan behar duzulako eta asko zaintzea eskatzen duelako”*, dio. Arlo horretan, doping-aren ingurukoa oso kontuan hartzen dela diosku kirolariak: *“Zenbat eta garbien lehiatzean dago gakoa eta, bolumenak baino gehiago, dietak eta kalitateak dute lehentasuna”*. Lehiaketetan 6-7 pose dira derrigorrez egin-beharrekoak, giharrak-eta erakusteko. Ondoren, konparaketak etortzen dira azken irabazlea erabakitzeke orduan: *“Lehiatzea gus-toko dut. Eta, prestatzerako orduan, burugogorra”*. Onartzen



du hankak direla bere arlorik indartsuena eta deltoideak apalena; zainak erakusten maisua da. Asko zaintzen da, baina ez zaio kostatzen: *“Garbi-garbi ja-*

ten dut: barazkiak, oilaskoa eta fruta. Azukre zuriak ikutu ere ez, eta arrautzak eta esnea fuera”.

Ez daki noiz arte jarraituko duen, baina epe laburrera ez du lagatzeko asmorik: *“Bizitzeko modua da eta, adinarekin, erre-kuperazioa gogorragoa egiten bazaizu ere, giharrak irabazi egiten du gogortasunean eta posturak gehiago lantzeko aukera duzu”*. Bi ordutik gora prestatzen da egunero (baita zapa-tuetan ere) eta ingurukoak ez ditu ahazten: *“Iker prestatzailearekin batera, Jon Urkiza botille-roaren lana azpimarratu nahi dut”*. Azken honek pintatzen du lehiaketetarako, *“ilusio optikoa sortzeko kapa batzuk emanez”*.






Kurilenko eta Petrichev eguaztenez egindako protestan euren egoera agertu zuten.

Arrate inoiz baino kinka larriagoan

EPEAK AMAITZEN DOAZ ETA TUNELETIK IRTETZEKO ARGI HANDIRIK EZ DA IKUSTEN. Astelehenerako aurkeztu behar ziren eskubalo taldea bideratzeko kandidaturak, baina "Gipuzkoako Foru Aldunditik heltzekoak ziren 400.000 eurorik gabe" inor ez da animatu aurrera egin eta urrats hori ematera. Astelehenean bildu ziren berriro Udala, Diputazioa eta azken hilabeteotan Arratek izan duen gestora eta gaurko dute hitzartuta beste bilera bat, oraingoan Martin Garitano diputatu nagusi berriarekin. Hortik ateratzen denaren arabera, hauteskunde berrietarako deialdia egin dezakete.

Prozesu guzti horrek bertan behera laga ditu denboraldi berriari begira Asobaleko taldearen osaketa-lanak eta, dirurik ez bada ailegatzen, taldea deuseztu eta beste berri bat sortzea izango da aukera bakarra: hori bai, harrobiko eta behe mailako taldeekin osatua bakarrik. Arratek gaur egun ia bi milioi euroko zorra du.

Mikel Aristi bergararraren aste bikaina gurean hasi zen



ASTELEHENEAN AMAITU ZEN GI-PUZKOAKO ITZULIA ERE BEREANATU DU SUMOFIC TALDEKO TXIRRINDULARIAK, proba horretan etapa bi ere irabaziz. Baina aurretik junior mailako San Juan sari nagusiaren 76. edizioa irabazi zuen Aristik, Caja Ruraleko Asier Unanuek eta Iker Azkaratek podiumean lagunduta. Irabazteaz gain, mendiko sailkapenez ere jabetu zen Aristi; Unanuerentzat izan ziren tarteko helmugen sailkapena eta saiatuarentzako saria. Debarrenako onena Ciclos Iturriagako Jokin Bergara izan zen.

Waterpolistak Italiako Del Mare torneora

ATZO JOAN ZIREN ITALIARA SENIOR ETA ESKOLA MAILETAKO TALDEAK, Del Mare nazioarteko izen handiko torneoa jokatzeko. Genoako Ligure itsasoan jokatzeko den lehiaketa horrekin bideratuko du Urbat-Urkoironik-en denboraldi amaiera, egun batzuk geroago (uztailaren 16an) Mutrikuko torneoarekin bukatuko dena. San Juan torneoa, bestalde, eibartarrak 14-10 nagusitu zitzaizkien Oiasso-Bidasoakoei, lehenengo denboraldia egin duten gazteen arteko partiduan. Aldameneko argazkian, talde bietako jokalariek.

Kruzetaren omenezko xake torneo jokatu da bihar

EUSKAL HERRIKO ETA INGU-RUETAKO HAMASEI TALDEK ETA 64 XAKELARIK jardungo

dute bihar arratsaldean, 16.00-etatik aurrera, Klub Deportiboko xake batzordeak antolatzen duen J.M. Kruzetaren omenezko Eibarko Hiria 27. xake txapelketan. Bost minutuko partida azkarren modalitatean jokatu da torneo, ikusleentzat erakargarriena den jardueran. Klub Deportivoak talde bi aurkeztuko ditu eta, irabazteko faboritoen artean, Errenteriariko Fomento Cultural eta Donostiako Gros Xake Taldea daude.



Eneko Baz-entzat urrezko domina bi jiu-jitsun

DONOSTIAN JOKATUTAKO BRAZILIAN JIU-JITSUKO EURO-FIGHTER KOPAN, Espainia osoko eta Frantziako ehun kirolaririk gora izan ziren, tartean Kalamuako bost ordezkari. Emaizta bikainak eskuratu zituzten azken



hauek eta, horrela, Eneko Baz onena izan zen jubenetan eta maila bereko erdi-astunetan, Tiago Carvalhok ere urrezkoa lortu zuen arin pisuko master mailan (klubeko irakaslea da bera), Ruben Pachecok zilarrezkoa lortu zuen senior mailako erdi-astunetan eta Wellington Cordeiro 4.a izan zen erdi mailan. Domina horiekin, Kalamuak 3. postua lortu zuen sailkapen orokorrean.

Hiru txapeldun tiro olimpikoko San Juan torneoan

JOSE ANGEL SOLA SENIORRETAN, JULEN SÁEZ JUBENILETAN ETA JULEN SOLOGAISTUA INFANTILETAN izan ziren ekainaren 18an Hezkuntza Esparruko instalazioetan jokatuak San Juan Torneoaren XX. edizioa irabazleak. Seniorretan, Jose Angelek aurea hartu zion Jose Miguel semeari eta Arkaitz Irciori; beste bi mailetan, bestalde, Aitor Zubizarretak eta Asier Lamarianok lagundu zioten Sáezi jubenetako podiumean eta Leire Saiz eta Iker Jauregibarria izan ziren, Sologaisturekin, infantil mailakoan.




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunene bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ALAITZ, ekaiñaren 23an lau urte egin zenduan-eta. Patxito bat etxekuen partez.




Zorionak, UGAITZ, Goitandia, ekaiñaren 25ian urte bi bete zenduazelako. Gurasuen partez.




Zorionak, IÑIGO, ekaiñaren 21ian urtebete egin zenduan-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, LIHER, hillaren 20xan urtia bete zendualako. Famelixaren partez.




Zorionak, JOKIN, martitzenian lau urte egingo dozuzelako. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MAULE, ekaiñaren 19xan urtebete edar egin zendualako. Famelixa guztiaren partetik.




Zorionak, ARRATE, atzo bost urte egin zenduaz-eta. Segidu holan. Etxekuen partez.



Zorionak, NORA, hareñegun zortzi urte bete zenduaz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, zure ahiztiaren partez.




Zorionak, OINATZ, gaur zazpi urte egitten dozuzelako. Ondo pasau. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAGORE, zortzi urte bete dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, EKHI!!!, ekaiñaren 24an hiru bete zenduaz-eta. Milla muxu aitta, ama, Paule eta famelixaren partez, xalau!



Zorionak, GARAT Guenaga, urte bi egin dozuz-eta. Ganix, Gari, aitxitxa, amama eta gurasuen partez.


zinea Coliseoan



"El diario de Greg 2"

Zuzendaria: David Bowers
Aktoreak: Zachary Gordon, Devon Bostich, Rachael Harris, Robert Capron


1ean: 22.30
2an: 19.15, 22.30
3an: 16.45, 20.0
4an: 20.30



"Pequeñas mentiras sin..."

Zuzendaria: Guillaume Canet
Aktoreak: Marion Cotillard, Benoit Magimel, Jean Dujardin, François Cluzet

1ean: 22.30
2an: 19.15, 22.30
3an: 16.45, 20.0
4an: 20.30




"Transformers 3 3D"

Zuzendaria: Michael Bay
Aktoreak: Shia LaBeouf, Frances MacDormand, John Malkovich, Josh Duhamel

1ean: 22.30
2an: 19.15, 22.30
3an: 16.45, 20.0
4an: 20.30




Zorionak, JON, ekaiñaren 25ian urtiak bete zenduaz-eta. Mikel, Idoia eta famelixa guztiaren partez.



Bai, bai, bai... ENARA gurekin alai!! Ongi-etorri etxera: aitatxok eta amatxok asko maite zaittugu. Zelan hazi zaren maiatzaren 22tik ekaiñaren 14ra!!!

Zorionak, SILBIA, gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat.



HILDAKOAK

- Moises Ferreiro Arias. 86 urte. 2011-V-27.
- Felix de Corpa García. 88 urte. 2011-VI-8.
- Julio Tejada Tibaida. 82 urte. 2011-VI-15.
- Benjamin Martín Del Cura. 90 urte. 2011-VI-16.
- Roberto Bartolomé Elosua. 45 urte. 2011-VI-18.
- Conchi Alvarez Saseta. 62 urte. 2011-VI-20.
- Luis Mª Mendia Lizarralde. 65 urte. 2011-VI-21.
- Rodrigo Villamor Fernández. 91 urte. 2011-VI-21.
- Enrique Vila González. 75 urte. 2011-VI-21.
- Ramon Zarraoa Ormazabal. 84 urte. 2011-VI-22.
- Mª Carmen Zelaia Azula. 88 urte. 2011-VI-25.
- Celestino Narbaiza Ansola. 82 urte. 2011-VI-25.
- Juan Pablo Hernández Tobías. 85 urte. 2011-VI-26.
- Ramona Lamas Fernández. 84 urte. 2011-VI-26.

JAOTAKOAK

- Saioa Oñederra Urkidi. 2011-VI-6.
- Zuleika Mohamed El Aissati. 2011-VI-10.
- Oier Díaz Gordo. 2011-VI-11.
- Jakes Gisasola Altuna. 2011-VI-15.
- Nora Iriondo Lavado. 2011-VI-15.
- Aiman Laroub. 2011-VI-16.
- Eneko Arakistain Salbide. 2011-VI-21.
- Maialen Barrietabeña Nieto. 2011-VI-21.
- Jurgi Pérez Gómez. 2011-VI-22.
- Malen Andérez Aristi. 2011-VI-22.

horoskopoa

ARIES

Zelan doia Sanjuanetako ajia? Edarto pasau zenduan eta normala da bixamona edukitzea. Udari hasiera emateko modurik onena izan zen.

TAURUS

Txikitan esandako zerbait etorriko zaizu gogora eta ederto aplikatu ahal izango duzu orain. Ondo egingo duzu, eskerrak argia zaren.

GEMINI

Ezin izango duzu sekretua gehiago gordeta eduki. Ondo egingo duzu kontatzen, baina konfiantzazko pertsona bati esan, ez pasa.

CANCER

Zure memoria laburrak egoera bitxi batera eramango zaitu. Zergatik ez duzu poltsikoan paper eta boligrafoa eramaten?

LEO

Lagun on baten aholkuak jarraitzeak sasoi da. Galduta zaudenean, zer hobe lagun batengana jotzea baino? Aprobetxatu aukera!

VIRGO

Alboan duzun pertsona hori zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago gustatzen zaizu. Zuretzat egina dagoela ematen du.

LIBRA

Eguraldia lagun izanez gero, motxila hartu eta irtetzeko aprobetxatu beharko zenuke. Mesede handia egingo dizu aire freskoa hartzeak.

SCORPIUS

Sanjuanetan ederto ibili zara, inoiz baino hobeto, baina gorputzak 'aski da' esan dizu. Atsedena emazioz, uda luzea zain du-eta.

SAGITTARIUS

Bapatean beroa, bapatean hotza... eguraldia ez da ados ipintzen eta zuretako kalte. Zaindu, ohean egun pare bat pasatu nahi ez baduzu.

CAPRICORNIUS

Zerbait gehiago eman dezakezula badakizu; beraz, zergatik ez duzu ematen? Berak zure beharra dauka. Pentsa ezazu bere ongizatean.

AQUARIUS

Gauzak errazgoak egingo zaizkizu hurrengo egunotan. Aktiboago egongo zara eta edozer gauza egiteko gauza izango zara.

PISCIS

Gaiztotzen zarenean, ederto gaiztotzen zara! Ez zaitez pasa. Min hartu arren, mendekuak ez du ezer konponduko. Hartu lasai.

Barixakua 1


JAIAXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO

19.00.- Arrateko jaiak prestatzeko bilera irekia. Monteka pareko parkean.

Zapatua 2

XAKEA

16.00.- Eibarko Hiria XXVII. Xake Joko azkarrak, Jose Mari Kruzetaren Oroimenez. Klub Deportiboak antolatuta. Untzagan.



Domeka 3

MEZA

11.00.- San Pedroko meza eta konjuroa. Akondia baserrian.

BOLO-PALMA

16.00.- Eibarko Hiria XXV. Bola-Jokoaren finala, Kantabriako Etxeak antolatuta. Ipuruako bolatokian.


Martitzena 5

ARRATEKO JAIK

19.00.- Arrateko Jaiak prestatzeko bilera. Portalean.

UDAKO DIAPORAMAK

22.00.- "Zaldiz mugarik gabe" (Asier Aranzabal, Mila Gallastegi). Kutxak babestuta. Antolatzaila: Arrate Kultur Elkarte. San Andres elizako klaustroan.




Eguena 7

ODOLA ATERATZEA

18.30.- Odol-emaileentzat odol-ateratzea. Pagaegi, 3 behean.

LIBURU AURKEZPENA

19.00.- "Maizales bajo la lluvia", Aitor Azurkiren liburuaren aurkezpena. Juan San Martin Liburutegian.



Eguaztena 6

UDAKO DIAPORAMAK

22.00.- "Dolpo, biziaren muturrean" (Joxe Ramon Agirre). Kutxak babestuta. Antolatzaila: Arrate Kultur Elkarte. San Andres elizako klaustroan.

UDAKO DIAPORAMAK

22.00.- "Dolomitak" (M. A. Otsoa de Alda, I. Diaz de Garaio). Kutxak babestuta. Antolatzaila: Arrate Kultur Elkarte. San Andres elizako klaustroan.


DENBORAPASAK

SUDOKUA

	5	7	2	9	
		3	6	5	
2					4
7		3	6		5
6			8		1
9		1	5		6
1					8
		8	5	2	
	9	6	8	3	

7	2	6	9	3	5	1	4	8
4	5	1	8	6	2	7	8	3
8	9	3	7	1	4	6	2	5
3	4	7	2	5	8	8	6	1
9	8	5	6	4	1	2	3	7
6	1	2	3	8	7	4	5	9
1	3	4	5	2	8	9	7	6
5	7	3	4	9	6	3	1	2
2	5	2	1	7	3	5	8	4

AURREKOAREN EMATZA



erakusketak

EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETAren erakusketa. *Topalekuan.*

– *Uztailen*

JULIAN OCHOAren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

ANDONI TREKUren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

ZIGOR ASTIGARRAGAren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

– *Uztailaren 2tik 8ra*

LAMBRETTA motorren erakusketa. *Eibarko dendetan.*



lehiaketak

– **Indalezio Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketa.**
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriaren 7ra arte*, Pegoran.

– **Asier Errasti Eibarko XI. Laburmetraia Jaialdia.**
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriaren 7ra arte*, Pegoran.

ikastaroak

– **Larrialdietarako formakuntza ikastaroa.**
Noiz: *Uztailaren 4tik 13ra*, astelehenetik barixakura, 09.00etatik 14.00etara.
Non: Lobiano jauregian (Ermuan). Izen-ematea eta informazioa: Gurutze Gorrian (Gipuzkoa etorbidean, autopistaren irteera parean) edo 943176248 telefonoan.

bekak

– **Juan San Martin ikerketa beka.**
Gaia: Mendizaletasuna. Informazioa eta lanak entregatzea: Pegoran edo www.eibar.net helbidean. Irailaren 1etik urriaren 15era arte.

farmaziak

1, barixakua
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

2, zapatua
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

3, domeka
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

4, astelehena
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

5, martitzena
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

6, eguaztena
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

7, eguena
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

8, barixakua
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

telefono jakingarriak

SOS delai112
Pegora010
Udaletxea943 70 84 00
Portalea943 70 84 39
Udaltzaingoa.....943 20 15 25
Mankomunitatea943 70 07 99
Debegesa.....943 82 01 10
KIUB943 20 38 43
Epaitegia943 03 34 00
Iberdrola901 20 20 20
Naturgas902 12 34 56
DYA Larrialdiak.943 46 46 22
Gurutze Gorria..943 22 22 22
Mendaro osp.....943 03 28 00
Anbulategia.....943 03 25 00
Torrekua.....943 03 26 50
Errepideak.....902 11 20 88
Ertzaintza943 53 17 00
Eusko Tren902 54 32 10
Pesa902 10 12 10
Taxiak.....943 20 30 71
.....943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai lpuuran. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta ganbara. Kalefakzioa. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 690-310927.

– Pisua salgai Egiuren-tarren kalean. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 665-729231.

– Pisua salgai Txaltxa-Zelai kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta ganbara. Kalefakzioa. Garajea aukeran. Deitu arratsaldez. Tel. 657-779650.

1.2. Errentan

– 3-4 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 678-097247.

– Logela biko pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 626-584512.

– Ubitxan buhardila alokagai. Logela bat, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Internet seinalea. Prezio interesgarria. Tel. 620-611718.

– Elgetan pisua alokagai. Logela bi, egongela, jangela, sukaldea eta komun bi. Eguzkitsua. Tel. 606-083992.

– Pisu handia alokagai Barakaldo kalean. Tel. 653-733457.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Amaña inguruan. Tel. 608-474923.

– Pisua alokagai Donostiako Eriz pasealekuan, Itsasaurre auzoan, lorategiz inguratuta. Logela bi, egongela, sukalde amerikarra eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 658-717754.

– Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela eta komun bi. Eguzkitsua, terraza-ekin eta inguru loretsuan. Dena kanpora begira. Tel. 943-201294 eta 645-728317.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.

– Garajeak salgai Txontan, 6-8 zenbakietan. Prezio interesgarria. Deitu arratsaldez. Tel. 696-409217.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Urkizun. Tel. 943-127100.

– Garajea alokagai (marra) San Andres pasealekuan. Tel. 617-688311. Elena.

– Garaje itxia alokagai Urkizu inguruan. Tel. 617-688311. Elena.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduetegi zabala. Tel. 689-273664.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-874887.

– Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko Eibarren edo inguruan. Esperientzia gozotegian, izozki-dendan eta barra eta mahaiko kamarera moduan. Tel. 676-822431.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Erreferentziak. Tel. 666-771151.

– Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 609-626366.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-257875.

– Neska euskalduna eskaintzen da uztaillean umeak zaintzeko. Tel. 663-527434.

– Neska eskaintzen da orduka garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 648-603029.

– Neska euskalduna eskaintzen da uda partean umeak zaintzeko. Tel. 622-112644.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 696-509360.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-821678.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129530.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak gauz zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 619-155804.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 671-742142.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 669-068439.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskajerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 669-068439.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Orduka. Tel. 608-947559.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak lanetarako. Tel. 669-311385.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 699-813826.

– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta klaseak emateko. Tel. 685-724198.

– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta klaseak emateko. Tel. 628-762758.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

– Mutila eskaintzen da igeltsero-laguntzaile, pintore moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-274490.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko, zerbitzari moduan eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-474923. Xiomara.

– Mutila eskaintzen da kamarero moduan, garbiketak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 649-086057.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-376387. Wendy.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta ostalaritzan lan egiteko. Tel. 652-580089. Yolanda.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 689-273664.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko interno edo gauz. Tel. 628-874887.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 618-656020.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-254145 eta 695-804895.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak paseatzeko. Tel. 630-410724. Dora.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-232823.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 943-257396.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.

4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 652-743249.

– Neska euskalduna behar da andra nagusia zaintzeko, interna moduan. Tel. 652-774988.

– Sukaldari-laguntzaile behar da. Ezinbestekoa da autoa eta esperientzia. Tel. 679-950907.

– Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 616-801304.

– Kamarera euskalduna behar da jatetxe baterako. Tel. 943-121262.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrik ematen ditut udan. Tel. 622-112644.

– DBHko klase partikularrik ematen ditut uztaillean eta abuztuan. Euskalduna eta esperientziarekin. Tel. 678-346970.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Aire egokiturako portatila salgai. Olimpia Splendid issimo 11 modelo. Potentzia: 3.000 frig/orduero. Tel. 659-453667.

– BBK jaialdirako (uztailaren 7an - Cold Play-) sarrera bi salgai. Tel. 688-604403.

6.2. Eman

– Katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

nik egun distiratsua babesarekin

haurren
babesa



lente
polarizatuak



lente
fotokromatikoak



UV
babesa



Ikusmen eta entzumen osasunean adituak
audifonoen egokitzapena eta entzumen azterketak

Errebal, 14 20600 Eibar
GIPUZKOA 943 202 137
plazaola@naturaloptics.com

natural optics
PLAZAOLA

naturaloptics.com

> **klinika kortazar**

Gidabaimenak eta armabaimenak

Bigarren Hezkuntzako
Institutua
A eta D ereduak


MATRIKULA:

Batxilergoak:

Uztailaren 5era arte

Zikloak:

Uztailaren 4tik 8ra



EIBAR-ERMUA
ICS-DHI

BATXILERGOA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
GIZA ZIENTZIAK ETA HUMANISTIKOA

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
NAZIOARTERKO MEREKATARITZA
AKTIBITATE FISIKO ETA KIROLO ANIMAZIOA
SISTEMA INFORMATIKO ETA BAREEN ADMINISTRAZIOA
PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIEN BARRAPENA
WEB APLIKAZIEN BARRAPENA

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
MERKONFORMATIKOAK ETA BARRAK
MEREKATARITZA

ARABU GABEKO HEZIKETA

HEZIKETA JARRAITZA
ZEREBINETAKO HEZIKETA
ERRAUNTZA PARTZIALA

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK